





A.1. Anomalia bat akats bat da. Ariketa honetan, anomaliatzat jotzen denaren adibideak aukeratu beharko dituzu.

	Eztabaida bat lankide batekin.
	Pitzadura bat horman edo sabaian.
	Itogina edo hezetasuna leiho eta ateetan.
	Egiteko agintzen dizuten zeregin bat da, eta ez dago bere funtzioen barruan
	Bisitari haserre batekin topo egiten duzu
	Entxufea egoera txarrean dago
	Bonbilla edo fluoreszentea urtu egin da
	Presazko fotokopiak egiten ari zara, baina ez dago paperik.

A.2. Beheko hitzak ordena egokian jarri, eta anomalia bati aurre egiteko moduari buruzko informazioa lortuko duzu.

DATA

ARGI

ETA

GARBI.

IDATZI

LEKUA ETA
ANOMALIA

Idatzi data, lekua eta anomalia argi eta garbi.

IDENTIFIKATU

EDO

PREMIAZKOA

GARRANTZITSUA

ANOMALIA

DEN

Identifikatu anomalia garrantzitsua edo premiazkoa den.

A.3. Erantzun galdera hauei eta idatzi Bai edo ez eskuineko zutabeetan.

Edozein langilek bete behar al ditu laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauak?	BAI
Zure eguneroko lanean, lantegiko bulegoetako giltzen ardura hartu behar duzu?	BAI
Lanean sortzen diren gorabehera guztiak idatzi behar dituzu?	EZ
Eraikinaren zaintzari buruzko gorabeherak zure arduradunari jakinarazi behar dizkiozu?	EZ
Eraikineko korridoreak eta aretoak aztertu behar dituzu dena ondo dagoela egiaztatzeko?	BAI
Bilera edo ekitaldi batean material suntsikorraz arduratu behar duzu?	BAI

A.4. Batzuetan, zure zereginetan eragiten duten egoerak sortzen dira lanean. Horren adibide bat lankide batekin izandako eztabaida da.

Bete hutsuneak kasu horietan jarraitu beharreko orientabideen gainean.

1. **Lasai** egon.
2. Izan **jarrera positiboa**, intentzio ona, izan zintzoa, barkatu behar izanez gero.
3. Entzun egin behar duzu, **esaten dizutena kontuan hartuta eta ulertu**, erantzuna emateaz gain.

Entzuten duzunean, begiratu **aurpegira eta adi egon**.

4. Hitz **errazak erabili**, gizalegezkoak.
5. Adeitsu eta **errespetuz jokatu**, aurpegi txarrik jarri gabe, hasperen egin gabe, haserretu gabe.

A.5. Hurrengo testua arretaz irakurri, eta erantzun galderari.

Donostiako Udalak bilera garrantzitsua egingo du ostiral honetan, azaroaren 28an, 10:00etan. Bertan, 25 eta 30 pertsona artean bilduko dira.

Mikelek Donostiako Udalean egiten du lan, Barne Zerbitzu Orokorretako laguntzaile gisa. Mikel, bilera gela prestatzeaz arduratu behar da.



Zein eginbehar ditu Mikelek?

- ✓ Berokuntza eta argia egokiak direla egiaztatu behar du. Eta aretoa garbi eta txukun egotea.
- ✓ Aireztapen-sistemak eta leihoak egiaztatu behar ditu. Halaber, larrialdietako irteerak erabili ahal izatea.
- ✓ Behar den teknologia dagoela egiaztatu behar da (ordenagailua, soinu-sistemak...)
- ✓ Material suntsigarri guztiaz arduratu behar da, hala nola boligrafoak, karpetak...
- ✓ Une oro bete behar du aurrez ezarritako protokoloa.